

5. KANALAK

- **Bezeroarekin edo bezero-segmentu anitzekin harremanetan jartzeko erabiliko dituzuen bide nagusiak deskribatzea.**

Kanalen artean, honakoak bereiz ditzakegu:

- Komunikazio-kanalak

Kanala esaten zaio, komunikazioaren teorian, giza-komunikazioak behar duen bide materialari. Mezuak igorlearen eta hartzailearen artean dagoen tartea igarotzeko, bide bat, kanal bat behar izaten du.

- Banaketa-kanalak

Merkataritzan, banaketa-kanala ekoizle batek bere produktu edo zerbitzuak kontsumitzailearen esku jartzeko erabiltzen dituen bitarteko eragileen multzoa da.

- Salmenta-kanalak

Salmenta-kanalak produktuak eta zerbitzuak kontsumitzaileei aurkezten dizkieten bitartekoak dira, hau da, gunea, bitartekoak edo plataforma bezeroari eskaintzen zaion negozioarekin harremana izateko aukera ematen duen.

Gure enpresa, 24 orduko vending bat denez, gure bezeroekin harremanetan jartzeko banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak erabiliko ditugu, bezeroekin harremanetan jartzeko errazagoa delako.

- **Zuen balio-proposamena bezeroari edo bezero-segmentuei banatzeko erabiliko dituzuen bide nagusiak deskribatzea.**

Ekoyoken produktuak gure hainbat vending-etan banatzeko, hainbat hornitzaile ditugu; hornitzaile gehienak produktuak eta arropa aldatzeko dira, baina beste hornitzaile bat dugu makina arazoren bat baldin badago edo agortzen bada aldatzeko edo konpontzeko. Beraz, gure produktuen banaketa momentuan egingo da, hau da, nola gure enpresa vending-etan kokatzen da, bezeroak erosten duten produktua momentuan lortu ahal izateko aukera dute. Tamalez, zuk nahi duzun produktua agortuta baldin badago gure vending-etan, segurazki guk gure hornitzaileei abisatu egin diegu produktuak ekartzeko, edo bestela bezeroak aukera izango dute telefono batera deitzeko eta abisatzeko zer arazo duten edo zer produktu falta den.

